

LANBROA

Pello Lizarralde



n a r r a t i b a •

erein

LANBROA

Narratiba, 151

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren dirulaguntza jaso du.

1. argitalpena: 2024ko apirilean

Azala eta liburuaren diseinua:

Erein

Azaleko argazkia:

José Ignacio Agorreta

Maketazioa:

Erein

© Pello Lizarralde

© EREIN. Donostia 2024

ISBN: 978-84-9109-943-7

L.G.: D 258-2024

EREIN Argitaletxea

Tolosa Etorbidea 107 - 20018 Donostia

T 943 218 300

erein@erein.eus

www.erein.eus    

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45 - 20800 Zarautz

T 943 835 008

itxaropena@itxaropena.net

www.itxaropena.net



Liburu hau inprimatzeko erabili den papera ekologikoa da eta modu jasangarrian kudeatutako basoetatik dator.

Pello Lizarralde

LANBROA



Ez dut berehala ezagutu. Segundo batzuk behar izan ditut. Emakumeak gona esekitokitik bereizi eta, hobeto ikusteko, esku batez jaso duenean, ez dut zalantzarik izan. Orduan buru-astindu bat egin eta atzera jo dut zutabearen atzean ezkutatu arte.

Bizkarrak zutabea ukitzen zuela jarri naiz. Bihotza pixka bat azkartu zait, eta horrek harritu egin nau. Urteak dira ez nuela antzekorik sentitzen. Denbora gutxi behar izan dut konturatzeko ezin nintzela han geratu, nengoen tokitik ezin nuela jakin zein izango zen emakumearen hurrengo mugimendua, eta oso litekeena zela harekin topo egitea.

Aurrera begira jarri naiz. Hamarren bat metrora nituen emaztea eta alaba. Galtza pare bat zuten esku artean, eta emaztea azalpenen bat ematen ari zitzaion alabari galtzen oihala ukitzen zuen bitartean. Iruditu zait emakumeari bizkarra emanaz haiengana biltzeak eskaintzen zidala ihesbide

bakarra. Zuzenean jo dut haiengana. Zakar eten dut beren jarduna, eta erreakzionatzeko astirik eman gabe esan diet jantzi-denda atarian egongo naizela zain.

Saltoki guneko galeria zentralera irten naiz zuzenean. Itsugarria egin zait kristalezko sabai erraldoitik irazten zen argia. Galeriaren hondoan bi jende ilara begiztatu ditut eskailera mekanikoetan, batekoak gora, bestekoak behera; galeriaren erdian, kiosko xume baten parean, dozenaren bat mahai zeuden, erdiak hutsik eta plastikozko basoz eta erretiluz beteta.

Erne ibili behar nuen. Emakumea noiznahi irten zitekeen. Galeriaren eskuin aldean ikusi dut babes hartzeko aukera bakarra. Lurretik metro erdira, marmol zuriz mugarriztatutako laukizuzen baten barruan, lorategi izan nahi zuen zerbait zegoen. Plastikozko zuhaitz batek hartzen zuen erdialdea eta lau kaktus zituen inguruan. Egiakoetan lurrak hartzen duen tokian ehunka harribil distiratsu.

Laukizuzenaren alderik urrunenean eseri naiz. Ez nintzen hain nabarmen gertatzen, eta jantzi-dendaren bi irteerak kontrola nitzakeen. Segituan beste zerbaitek aztoratu nau. Ez nintzen konturatua, eskailerez gain, kristalezko igogailua zegoela nigandik metro gutxira, eta han zebiltzanen begiradapean nengoela. Are gehiago baztertzea erabaki dut orduan.

Begien aurrean hain segundo gutxiz izan dudan aurpegiaren hazpegiak osatzen ahalegindu naiz. Alferrik, ordea. Aurpegi horri beste hura jartzen zaio gainean.

Urteak joan dira, eta ez gutxi. Ez da zaila zenbat diren ateratzea. Erotuta beharko nuke hanka egin behar izan nuen

eguna ahaztua izateko. Egunotan hogeita bi urte beteko dira. Bi erbestean, hamabi barruan eta zortzi kanpoan.

Harrigarri samarra zait hainbeste urteren ondoren aurpegi hori ezagutu izana. Azken batean, ordu gutxiko kontua izan zen. Egon ziren egoera latzagoak eta gehiago iraun zutenak, eta orduko haietan lagun asko eta asko gurutzatu zen nire bidean; haiek, ordea, urteen joanak-edo ezartzen duen ilunpea dela eta, erabat itzali dira, arrastorik utzi gabe. Bizi izan dugun horretan badago zera bat argien eta itzalen gorabeherak mendean dauzkana.

Hamarren bat minutura atarian ziren emaztea eta alaba. Erdizka babesten ninduen kaktusaren atzetik atera eta zutitu egin naiz. Haiek ez dute niregana inguratzeko keinurik egin, eta emaztearen aurpegia ikusita banekien ez zela mugituko. Haiengana gerturatu orduko emazteak ezpainak zimurtu eta burua alde batera eta bestera mugitu du. Zakarra eta pazientzia txikikoa naizela aurpegiratu dit hitz egin hasi orduko. Sesioan aritu garela esatea gehiegitxo esatea litzateke. Emaztearen erretolika eteten saiatu naiz ahalegin handirik egin gabe, eta ez dut uste esaldirik osatzea lortu dudarik. Alabak pauso bat egin du atzera eta bi eskuetako hatzak bihurritzen hasi da guri begira zegoen bitartean. Emazteak eztabaidari eman dion errematea ez da gozoa izan: behin etorriko egun-pasa hirira, eta horrela bukatzea ere...

Beste ezer gaineratu gabe urrutiratu dira galerian zehar, eskutik helduta. Ni atzean, dozena erdi bat metrora. Denok genekien lurrazpiko garajea elkartuko ginela.

Barregarria zait pentsatzea zein erraza izango litzatekeen baketzea. Bost minutuko kontua. Segituan ulertuko luke emazteak nire jokaera. Alde-aldean izan dut beti, ez dit sekula huts egin, ez zuen zalantzan jarri garai batean hartu nuen bidea eta erabaki horrek zekarrena. Bat etorri gara gehiengotan, sinesteetan nola dezepzioetan. Emazteak beti jakin izan du aurrera egiten. Delikatua eta sendoa da aldi berean, eta hitz gutxi behar izaten ditu ni iraganetik aterarazteko.

Egin nezake, baina ez dut egingo. Ez diot aipatuko zer ikusi dudan eta zergatik hanka egin dudan hain era zakarrean. Nahikoa da, ez du zertan luzaroago eraman. Autoan sartu eta etxera itzuliko gara. Ez da atsegina izango, baina ez du asko iraungo. Neronek irentsiko dut. Kanean nagoenetik antzeko bi edo hiru egoera bizi izan ditut, eta badakit zer datorren. Egun pare bat emango dut tarteka ikusi berri dudan aurpegia datorkidala. Aurpegi hura eta, harekin batera, egun haiek.

Mesede ere egin liezadake egun hartako xehetasunak gogoratzek. Egin izan dut behin edo bestetan, eta iruditzen zait gertaera batzuk argi gutxiago dagoen zokoetara baztertzen direla. Bake pixka bat lortu izan dut hala. Ez da egonkorra, ordea. Dena ez dago gure esku. Iraganak erabakitzen du noiz azaleratu bere mamuak.

Ibiliala mantsotu dut gizona ikusi orduko. Pausoa gero eta laburrago botaz, harengandik metro gutxira gelditu naiz azkenik. Ez dut duda izpirik izan, egun hartan begien aurrean

zenbait orduz izan nuen soslai bera zen. Lokiko ile urdinuak goiti-beheiti, lehengoa zen.

Hatsa zintzurrean trabatu zait. Ahoa arras irekita ere, ez dut lortu arnasak bere bidea egitea. Gizona ez zegoen baka-
rrik, emakume bat zuen aurrean, zentimetro gutxira. Sesioan ari ziren. Ez dut ezer entzuterik izan, beren artean ez baitzegoen oihurik, baina agerikoa zen zer zuten. Emakumearen ezpainak etengabe mugitzen ziren; gizona, besoak gerri parean, esku ahurrak gorantz, erantzunen bat tartekatzen ahalegintzen zen. Apal ari zen, gainera, eta ezinezkoa zitzaidan jasotzea nik gogoratzen nuen aginduzko ahots haren tonua, tarteka estutasunak eta hats eskasiak kraskatzen edo mehetzen zuten hura.

Bat-batean jiratu eta irteerara jo dut. Ez dakit zer ibilbide egin dudan. Irteerako ate birakaria eskuekin bulkatu dut, haren mekanismoa azkartzeko gai banintz bezala. Hatsanka bermatu naiz atariko horma bazter batean. Urri beroegi honek ez dit behar beste ainerik ekarri. Autoa, zorionez, kanpoan nuen aparkatua. Une horretan, haatik, autoan sartzea kaiola batean sartzea bezala zen. Merkataritza-gunetik sartzen eta ateratzen zirengandik hurbilegi nengoen, eta are leku bazterrago bat bilatu dut. Hegoak bortizki jotzen zuen, ileak kopetan jotzen ninduen eta begiak estaltzen zizkidan. Berriz irteerako horma batean hartu dut babes. Orduan ohartu naiz eskuan nuela erosi berria nuen gona. Eskuaren izerdia dela medio, paperezko poltsak bustia eta zimurtua zuen heldulekua. Burua atzeratu eta begiak bildu ditut istant batez, eta ireki ditudanean neskatico bat nuen begira, esku bat ahoan,

begiak arranpalo. Bizkarra zuzendu dut, haurra ez da mugitu emakume ahots batek itzultzeko agindu dion arte.

Aparkalekuko bidea hartu dut alde batera eta bestera begiratzeari utzi gabe. Auto ondora iritsita egarri handia sentitu dut. Nire poltsan autoko giltza aurkitu ezinik nenbilerarik negar-zotin labur bat ito dut. Barrenean bolanteari irmo eutsiz geratu naiz. Duda egin dut autoa hartzeko moduan ote nengoen, eta aurrera egitekotan auto gutxi dabilen errepidea hautatu beharko nukeela erabaki dut.

Abiatzear nengoelarik bihotzak jauzi egin dit. Lurrazpiko aparkalekutik atera berria zen SUVearen galerian ikusia nuen gizona zihoan. Bera zen gidari, emakumea zuen ondoan, eta errepide nagusian sartzeko biratutakoan beste silueta txiki bat begiztatu dut. Mantso urrundu dira, eta erabat lekutatutakoan, besoak eta burua bolante gainean egon naiz bihotz-taupadak pixka bat baretu arte.

Makurrik gabe iritsi behar dut etxera. Aztoratuta egon arren inork ez dit ezer esanen, inor ez da ezertaz ohartuko. Nerabe batekin bizitzeak ez du gozagarri askorik ematen. Semek nahiko lan du bere burua ulertzen, ez nau ikusi ere egi-ten, eta bere petralkerien aurrean purrustadarik bota gabe egotea lortzen badut, ohiko keinuak errepikatuz eutsiko diogu. Gaur nire alde dut ikusezin izatea.

Afaria prestatuko diot. Bestela, badakit edozein zerrikeria janda hanka eginen duela, lagunengana biltzeko aherrik baitago beti. Arratsean bakarrik egoteak ez dit onik eginen, baina, ahaleginik handiena eginda ere, hamasei urteko gazte batek ez luke sekula ulertuko zer dudana eta zergatik.